



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

zinegotziak

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2014ko abenduaren 29an, arratsaldeko 19:30etan, eta Udaleko alkate udalburua, Begoña Balerdi Urdampilleta izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

443/2014 Dekretua

447/2014 Dekretua

451/2014 Dekretua

479/2014 Dekretua

488/2014 Dekretua

492/2014 Dekretua

506/2014 Dekretua

514/2014 Dekretua

518/2014 Dekretua

544/2014 Dekretua

445/2014 Dekretua

449/2014 Dekretua

455/2014 Dekretua

486/2014 Dekretua

490/2014 Dekretua

505/2014 Dekretua

513/2014 Dekretua

516/2014 Dekretua

520/2014 Dekretua

547/2014 Dekretua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

549/2014 Dekretua
552/2014 Dekretua
573/2014 Dekretua
575/2014 Dekretua
570/2014 Dekretua
580/2014 Dekretua

550/2014 Dekretua
568/2014 Dekretua
574/2014 Dekretua
577/2014 Dekretua
581/2014 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

3.- 3/2014 KREDITU ALDAKETA

“KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 3 zk.ko ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuen aho batez, honako hau

ERABAKI DA

1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
601.449.01.01	Inbertsioak	42.039,03	36.455,76	78.494,79
GUZTIRA		42.039,03	36.455,76	78.494,79

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
112.000.00.02	Ondasun Higiezin Hiritarra	44.911,51	1.000,00	45.911,51
113.000.00.01	Ibilgailuen Zerga	48.500,00	500,00	49.000,00
130.000.00.01	Iharduera Ekonomikoen Gaineko Zerga	13.859,19	14.975,38	28.834,57
282.000.00.01	Obratako Lizentziak	12.500,00	4.300,00	16.800,00
310.000.00.09	Udal Ur Hornidura	27.000,00	5.490,00	32.490,00
310.000.00.16	Udalk Antolatutako Ekintzak	3.000,00	650,00	3.650,00
321.000.00.09	Lurraren Okupazio Tasa	7.000,00	1.250,00	8.250,00
396.000.00.01	Telefonika-Euskaltel	2.383,00	147,00	2.530,00
399.000.00.01	Bestelako Diru Sarrerak	1.328,45	5.020,00	6.348,45
410.000.00.01	Bake Epaitegia-Laguntzak	1.075,00	675,00	1.750,00
410.313.02.01	E.J. Gizarte Larrialdietarako Laguntza	4.508,00	973,00	5.481,00
410.411.01.99	E.J. Osasun Zentruko Gastuak	6.419,93	5.445,00	11.864,93
420.313.01.01	F.A. Etxez Etxeko Laguntza Zerbizua	16.655,68	3.445,00	20.100,68
422.000.00.99	Tolomendi. Laguntza	0,00	1.560,76	1.560,76
GUZTIRA		189.140,85	36.455,76	225.596,61

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

4.- 2015 URTEKO AURREKONTU OROKORRA

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzeko dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2013 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituz:

SARRERAK

Kapitulua	Izena	€Guztira/
1	Zuzeneko Zergak	109.625,93
2	Zeharkako Zergak	5.000,00
3	Tasak eta Bestelako Zergak	72.328,20
4	Transferentzi Arruntak	434.945,87
5	Ondare Sarrerak	100,00
7	Kapital Transferentziak	0,00
9	Pasibo Finantzarioak	0,00
SARRERAK GUZTIRA		622.000,00



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

GASTUAK

Kapitulua	Izena	€ Guztira
1	Pertsonal Gastuak	223.668,30
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuetan	263.898,89
3	Finantza Gastuak	600,00
4	Transferentzi Arruntak	110.716,97
6	Inbertsioak	0,00
9	Pasibo Finantzarioak	23.115,84
IRTEERAK GUZTIRA		622.000,00

2015 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA
KARRERAKO FUNTZIONARIANTZAT GORDETA KO LANPOSTUAK

IZENA	Lanp. Kop.	T.6/89 L. 43. Art.	Egoera	%
IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK Idazkari-Kontuhartzaitzaren Azpimaila				
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	1	A1/A2	J	70%
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA Laguntzaileen Azpimaila				
ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA	1	C2	J	
ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA Azpimaila Teknikoa				
* Mota: Erdiko Teknikariak GIZARTE LAGUNTZAILEA	1	A2	H	36%
Administratiboa/ * Mota: Laguntzailea LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	1	C2	J	40%
Zerbitzu Bereziak * Mota: Ofizioetako Pertsonala ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA	1	C2	J	
GARBITZAILEA	1	E	J	

2015erako LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Lanp. Izena	Esk	Azpi esk	Titulazioa	S.P	Ded	Ta	Mail	Os. Espez.	H.E.	Derr. Data	Egoera	Best.
IDAZKARI-KONTU HARTZ	Adm Oro	F.H. N	P Zien. - Zuzen Dipl	C	% 70	A1 A2	23	18.480,42	4	91-02-06	Aktib.	Agrup
ADMINISTRARI LAGUNTZAIL.	Adm Oro	Lagunt	Eskola Grad edo LH1	C	%100	C2	14	18.906,72	3	91-02-06	Aktib.	Funtz.
GIZARTE LAGUNTZAILEA	Adm Ber	Teknik	Diplomatu a	C	% 38,01	A2	17		3	91-12-01	Hutsa	Funtz.
LANETAKO OFIZIALA	Adm Ber	Zer Ber	Eskola Grad edo LH1	C	% 100	C2	16	19.020,68	2	91-02-06	Aktib.	Funtz.
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAIL	Adm Oro	Lagunt	Eskola Grad edo LH1	C	% 41,84	C2	13	6.058,08	3	96-04-01	Aktib.	Funtz.
GARBITZAILEA	Adm Ber	Zer Ber	Eskola Graduatua	C	% 55,78	E	8	8.163,26	2	92-05-01	Aktib.	Funtz.

BEHIN-BETIKO LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi esk	Titulazioa	S.P	Ded	Ta	Maila	Os. Espez.	H.E.	Derr. Data	Egoera	Best. Otros
GIZARTE LANGILEA	Adm Ber	TEKN	Diplomad	C	% 38,01	A2	13	Ez/No	3	91-12-01	Mugagab	

2015 urterako Aurrekontu Orokorra eta Aurrekontu Exekuziorako Udal Arauak, 2015eko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda aho batez onartuak izan dira.

DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA

1. artikulua. Xedea



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Araudi honen xedea dirulaguntzak emateko ordaun Lizartzako Udalak jarraitu behar duen prozeduraren arautegi orokorra finkatzea da.

2. artikulua. Eremua

Lizartzako Udalak pertsona nahiz erakunde publiko edo pribatu baten alde jarritako edozein fondo publikori aplikatuko zaio araudi hau, interes soziala duen edo onurazko jarduerak sustatzeko edo helburu publiko edo sozialak lortzeko beren eskumen eremuaren barruan.

3. artikulua. Dirulaguntzak emateko organo eskuduna

Dirulaguntzaren egilestea organo eskudunak erabakiko du, Erregimen Lokalaren Oinarriei buruzko Legeak eta Araudi honetan xedatutakoaren arabera non Aurrekontuko Exekuzio Araudiaren 7. artikuluan ezarritakoa garatzen den.

4. artikulua. Onuradunak

Fondo publikoen onuradun izango da: Dirulaguntza ematea erabakitzeko arrazoi izan diren jarduerak burutu behar dituen edota dirulaguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, beti ere Subentzio Lege Orokorraren 13.2 artikuluan xedatutako kausetakoren baten barruan aurkitzen ez bada.

5. artikulua. Onuradunaren betebeharrak

Onuradunak ondoko betebeharrak izango ditu:

- a) Dirulaguntza emateko arrazoi diren jarduerak burutzea.
- b) Jarduera gauzatu dela eta dirulaguntza emateko erabakian jarritako baldintzak epeen barruan bete direla egiaztatzea.
- c) Lizartzako Udalak edo bere Organismo Autonomoek egin ditzaketen finantza kontrol eta egiaztapen jarduketak onartzea.
- d) Helburu bererako beste administrazio edo erakunde publikotatik jasotako dirulaguntzen berri ematea Lizartzako Udalari edo bere Organismo Autonomoei.

Betebehar horiez gain, dirulaguntza ematerakoan baldintza bereziak jarri bazaizkio haiek ere bete beharko ditu onuradunak.

Aipatutako betebeharrak betetzen ez baditu onuradunak, dirulaguntza ezeztatu egingo da.

6. artikulua. Dirulaguntzak emateko moduak



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta norgehiagoka bidez edo eskarien konparaketaz emango da. Nolanahi ere, zuzenean eman ahal izango dira ondorengo kasuetan:

- a) Aurrekontuan izendun gisa aurreikusitakoak.
- b) Haien emakida edo kopurua Administrazioari ezartzen zaizkionak.
- c) Lege mailako arau baten bidez. Salbuespen gisa, interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa edo bestelako arrazoi ongi justifikatuak egaztatzen direlarik deialdi publikoa egitea zaila gertatzen denean.

7. artikulua. Zuzeneko erregimenean ematen diren dirulaguntzen tramitazioa

- 1.- Aurrekontu dokumentuarekin batera onartuta gelditzen diren diru-laguntzen zerrenda izenduna, Araudi honekin batera doan eraskinean jasotzen da.
- 2.- Interesatuaren eskaera, dirulaguntza ematea erabakitzeko beharrezko diren agiri eta informazioarekin batera, edota bere kasuan, dagokion Batzorde Informatiboaren proposamena.
- 3.- Batzorde informatiboak dokumentazioa konprobatzea.
- 4.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta aurrekontu kreditua zehazten dituen Informazio Batzordearen dirulaguntza emateko proposamena.

8. artikulua. Aldaketak

Dirulaguntza emateko kontuan hartzen diren baldintzak aldatzen badira eta, bereziki, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk emandako dirulaguntza edo laguntzarik jasotzen bada, dirulaguntza emateko erabakia aldatu ahal izango da.

9. artikulua. Dirulaguntza ordaintzeko baldintzak

Dirulaguntza emateko kontuan hartzen diren baldintzak aldatzen badira eta, bereziki, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk emandako dirulaguntza edo laguntzarik jasotzen bada, dirulaguntza emateko erabakia aldatu ahal izango da.

10. artikulua. Betebehar fiskalak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak beteak izatearen beharra

Dirulaguntza ezingo da ordaindu onuradunak betebehar fiskalak eta Gizarte Segurantzaren aurrekoak egunean dituela egiaztatzen ez duen bitartean.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

11. artikulua. Ordainketa aurreratua

Nolanahi ere, dirulaguntzaren izaerak eskatuta edo norgehiagoka bidez izapidetu behar eta horrela aurreikusten denean Oinarri Erregulatzailleetan, ordainketa aurreratua egin ahal izango dira justifikazioa egin aurretik dirulaguntzari atxikitako ekintzak burutu ahal izateko finantzazio gisa.

12. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa

Obligazioa ontzat jo eta likidazioa egiteko, ezinbestekoa da justifikazioa. Horretarako, onuradunek ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- 1.- Jarduera azalduko duen txostena.
- 2.- Diru-sarrera eta gastuen kitapena, lortutako etekina adieraziz eta horrekin batera burututako gastuak egiaztatuko dituzten fakturak edo baliokideak diren agiriak, jatorrizkoak edo, hala ez balitz, fotokopia konpultsatua.

13. artikulua. Justifikazio epea

Dirulaguntzaren justifikazioa obligazioa onartu aurretik egingo da. Dirulaguntza norgehiagokako erregimenean ematen bada, froga agiriak aurkezteko epea Oinarri Erregulatzailleetan zehaztuko da.

14. artikulua. Froga agirien egiaztapena

Froga agirien egiaztapena, dagokion informazio batzordeak egingo du.

15. artikulua. Itzulketa

Ezohizko kasuren batean dirulaguntza –osorik edo zati bat- aurrerapen modura ematen bada, hartzaileak jasotako kopurua itzuli egin beharko du, berandutza interesak barne, hala badagokio, ondoko kasu hauetan:

- a) Froga agiriak aurkezten ez badira.
- b) Dirulaguntza ez bada erabiltzen, hura emateko erabakian jarritako helburuak betetzeko.

Modu berean, emandako dirulaguntza –Lizartzako Udalak bakarrik edo beste administrazio edo erakunde pribatu zein publikoren batek emana-, garatutako jardueraren zuzeneko kostua baino handiagoa bada, aldeko diferentzia hori itzuli egin beharko du onuradunak.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

TRANSFERENTZIEN ERASKINA		
4. Kapituluua: Transferentzi Arruntak		110.716,97
Kanpoko Erakundeak		49.908,97
Euskal Fondoa	3.997,14	
Tolosaldeko Mankomunitatea	30.000,00	
Tolosaldeko Mendi Nekazaritza	3.711,83	
Belarmendi	5.000,00	
Tolosaldea Garatzen	5.200,00	
Udalbiltza	2.000,00	
Udal Taldeei Ekarpinak		54.508,00
Gizarte Zerbitzuak	35.008,00	
Hezkuntza	1.500,00	
Udal Liburutegia	2.000,00	
Kirolak	3.000,00	
Festak	6.000,00	
Euskera	1.000,00	
Kultura	5.000,00	
Mendiak	1.000,00	
Erakundeei laguntzak		6.300,00
Erakundeei laguntzak	5.300,00	
<i>Otsolar Dantza Taldea – Ihauteriak</i>	<i>600,00</i>	
<i>Nafarroa Oinez – Herri Urrats</i>	<i>200,00</i>	
<i>Tolosaldeko Komunikazio Taldea</i>	<i>300,00</i>	
<i>Txirrindulari Froga</i>	<i>1.000,00</i>	
<i>Ataria</i>	<i>3.200,00</i>	
Familiei laguntzak	1.000,00	

Diru laguntzek emateko araudia, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

5.- LIZARTZAKO UDAL ERROLDAREN LAGAPENARI BURUZKO LANKIDETZA HITZARMENA, GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEAN.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

AURREKARIAK

I.- GGLA, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Arrasate, Zarautz eta Hernaniko Udalek osatutako kontsorzio bat da, eta bere xedea Lurralde Historiko osoa kohesionatzea da, garraio eredu jasangarriaren bidez, eta mugikortasunaren alorrean herri administrazioen helburuak babestea. Bere zeregina, Gipuzkoako Lurralde Historikoan herritarren mugikortasun irisgarria eta kalitatezkoa sustatzea da.

II.- Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lurraldebus txartelaren bidez, Lurraldebus hiriarteko autobusetan sartutako esparru bat ezartzea lortu zuen, hau da, zonakatze bera, tarifa berak, ordaintzeko modu bera eta hobari/deskontu berak ezarri zituen, eta aldi berean zerbitzu elkarreragingarria da Donostia, Irun, Arrasate, Hernani, Errenteria eta Oiartzungo hiri-autobusekin, baita Renfeko Aldiriak zerbitzuarekin ere. Lurraldebus txartelak hiriarteko garraio publikoaren erabilera areagotzen lagundu zuen nabarmen.

Beste urrats bat emateko eta, Gipuzkoan, Lurralde Historikoko garraibide publiko nagusietan tarifen integrazioa abian jartzeko asmoz, etorkizunean beste garraibide batzuk eransteko aukera irekita utziz, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak lurraldeko garraio publiko osorako tarifa esparru global bat zehaztu du. Horrela, 2012an, lurraldeko eragile nagusiekin batera (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Irungo Udala, Errenteriako Udala, RENFE eta EUSKOTREN), lurraldeko garraio publiko kolektiboan tarifak integartzeko sistema ezartzeko Lankidetza Protokolo Orokor bat sinatu zuen.

Protokoloak, sistema hori ezartzea sustatzeko lankidetza esparru orokor bat ezarri zuenak, jaso zuen protokolo hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraibide guztietan sartutako taldeak finkatzean oinarritu beharko litzatekeela, garraibide guztietan komunak diren gizarte politikak aplikatuz.

Aipatutako protokoloaren II. Eranskinak tarifa integartzeko sistemako talde bereziak zehaztu zituen, eta talde horiei dagokien txartela lortzeko baldintza gisa ezarri zuen Gipuzkoan erroldatuta egoteko betebeharra.

III.- Kontsortzioko kide diren entitateek txartel bakarraren kudeaketa GGLAri eman zioten, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifa integartzeko sistema ezartzeko hitzarmenak sinatu zituzten.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

2013ko martxoaren 4an Gipuzkoako Tarifa Integrazioa ezarri zen MUGI markaren mendean.

Bestalde, 2013ko martxoaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak GGLAri, Gipuzkoan bidaiarien garraio publikoaren tarifa integratzeko sistema kudeatzeko beharrezkoak ziren LURRALDEBUS, S.L.U.-tik eratorritako aktiboak, eskubideak eta betebeharrak laga zizkion.

IV.- Egun, taldeentzako 130.000 MUGI txartel baino gehiago daude, hau da, horien titularrak Gipuzkoan erroldatuta egotea eskatzen dutenak.

GGLAren berezko zereginak garatzeak zehazten du beharrezkoa dela GGLAK egiaztatzea taldeentzako MUGI txartelak eskatzen dituztenak Gipuzkoako udalerrri batean erroldatuta daudela.

V.- GGLAren helburu nagusien artean dago erakundearteko lankidetzaren harremanak areagotzea eta modernizazioa bultzatzea, dauden baliabideak arrazionalizatzea, batetik, baliabide publikoen kudeaketa eraginkorra bilatuz, eta bestetik, erabiltzaileei eta oro har herritarrei zerbitzu hobea eskaintzea, lan administratiboak sinplifikatuz edo izapide jakin batzuk erraztuz, hori guztia, pertsonen intimitate eskubidea zaintzeko eta beren datu pertsonalak babesteko beharrezkoak diren bermeak kaltetu gabe.

Horregatik guztiagatik, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko interesa dutenez, Udalak eta GGLAK ulertzen dute egokia dela GGLAK taldeentzako MUGI txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak modu telematikoan eskuratu ahal izatea; eta Udala da datu horiek dituenak.

Hobekuntza, herritarrei eragozpenak sortzea saihesten den eta zerbitzu publikoetara sartzea errazten zaien neurrian lortzen da, eta aldi berean, udal baliabideak aurrezten direlako, eskaerak artatzeari eta errolda dokumentuak igortzeari dagokienez.

VI.- GGLAren berezko lanak egiteko taldeentzako txartela eskatzen duen pertsonaren bizilekuaren datuak telematikoki eskuratu behar dira. Aipatutako informazioa eskuratzeko, lehentasunez bitarteko informatikoak edo telematikoak erabiliko lirateke eta herritarrek, Udalean dauden beren datu pertsonalei dagokienez dituzten eskubideak eta bermeak babestuta egingo litzateke.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Errolda egiaztatzeko izapidea Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea enpresaren bidez kudeatuko litzateke.

VII.- Bestalde, GGLAk eskaera egiten duten erabiltzaile guztiei baimena eskatuko die, baita egun txartel horiek dituztenei ere, erroldako datuak eskuratzeko.

Horrenbestez, aipatutakoa kontutan hartuta Udal Batzar honek, Batzorde Informatzailearen proposamena jarraiki, eta gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, honako hau

ERABAKI DU

LEHENA: Lizartzako Udal Erroldaren Lagapenari buruzko lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

BIGARRENA: Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Lizartzako Udalaren izenean eta ordezkartzan sinatzea.

HIRUGARRENA: Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkate-lehendakariak sinatuta.

6.- MOZIOAK

GIZARTE LARRIALDITARAKO LAGUNTZAREN DIRU LAGUNTZA LERROAREN INDARTZEKO ESKAERA MOZIOA

Administrazio publikoek herritarren bizi kalitatea eta oinarrizko eskubideak bermatu behar dituzte. Hori horrela, bizitzeko oinarri oinarrizkoak diren zerbitzu eta eskubideak bideratu behar dizkie herritarrei eta hauek kalitatezkoak izan daitezen lan egin behar du. Modu horretan, hezkuntza zein osasuna bezala bizitza autonomo eta duin bat izateko eskubidea du herritar orok, Nazio Batuen Erakundearen bere 25. artikuluan dioen moduan:

Toda persona tiene derecho a un nivel de vida adecuado que le asegure, así como a su familia, la salud y el bienestar, y en especial la alimentación, el vestido, la vivienda, la asistencia médica y los servicios sociales necesarios; tiene asimismo derecho a los seguros en caso de desempleo, enfermedad, invalidez, vejez u otros casos de pérdida de sus medios de subsistencia por circunstancias independientes de su voluntad.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Oinarrizko eskubideen bizi kalitateak asetzen dituen administrazioak gizarte kohesionatu eta orekatua du, zeinaren bidez, herritarren arteko segurtasuna bermatzen laguntzen duen.

Egun, krisialdi ekonomikoaren testuinguru batetan egonda, inoiz baina garrantzitsuagoak dira eskubide hauek bermatzeko administrazio publikoek lan egitea. Langabeziaren igoerak gizarte kohesioa hausteko bidea irekitzen duelako eta honen bidez herritarren oinarrizko eskubideak ez bermatzea eraman. Beharrak inoiz baina handiagoak izaki, administrazioek ahaleginak handitu behar dituzte eta horrekin batera aurrekontu partidak.

Testuinguru honetan, 2008ko Gizarte Zerbitzuetako 12/2008 Legeak inoiz baina garrantzia handiago hartzen du. Bertan aurrez eskaintzen ziren zerbitzu asko oinarrizko eskubide izatera pasatzen dira eta administrazio publiko bakoitzari dagozkion zer eginak zehaztu.

Eskubide eta egin behar horien artean GLL, Gizarte Larrialditarako Laguntzak daude. Hauen bidez, herritar askok behar beharrezkoak dituzten gaiak ordaintzeko laguntza jasotzen dute, hala nola, etxebizitzaren alokairua, elikagai, janzteko arropa zein bestelako oinarrizkoak. Laguntza honen arduraduna Eusko Jaurlaritzak da eta udaleko gizarte zerbitzuen bidez banatzen dira herritarrei.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak ez dira aldizkakoak, dirutan ematen dira, subentzio moduan eman ere. Gizarte-bazterkeriarik gerta ez dadin edo halako bazterkeriak konpontzeko behar beharrezkoak diren gastuak ordaintzeko nahiko baliabiderik ez dutenezko dira, eta berdin du dena delako gastua arrunta edo ez-ohikoa den.

Azken urteetan, herritarren beharrak handitzen joan ahala diru funtsa honen zenbatekoa ez da nahikoa izaten ari. Jaurlaritzak aurreikusten dituen partidekin ez da urte guztirako emaria bermatzen. Iaz uda iristeko agortu zen Jaurlaritzak funtzio hauetarako aurreikusia zuzen partida. Aitzitik, Gipuzkoako udalek euren gain hartu behar izan zuten laguntza horren zama Gasteizko aurrekontua amaitutakoan. Onuradunak gero eta gehiago dira eta baldintzak asko zorrotz dira.

Eusko Jaurlaritzak, 2014 urtean Lizartzako Udalarari 5.481,00 euroko aurrekontua eman dio Lizartzako herrian sortzen diren Gizarte Larrialdiak kubritzeko. Aurrekontu guztia agortuta dago. Urtean zehar Udalean eskaera asko jaso dira eta horietatik denek eskubidea zuten GLL jazotzeko bi izan ezik.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Pertsona guztiak atenditzeko, minorazioak egin behar izan ditugu dirua banatzeko. Modu honetan inork ez du jaso legez tokatzen zitzaiena..

Hau dena kontutan harturik, Lizartzako Udalak,

- "Gizarte Larrialdietarako Laguntza" izeneko diru laguntzaren beharrezkotasuna onartzen du, beraren bidez gizarte kohesioa sustatu eta oinarrizko giza eskubideak bermatzen laguntzen dutelako.
- Herritarrek dituzten beharrak asetzeko adinakoa izan dadila Eusko Jaurlaritzaren GLL ko diru ekarpena.
- Mozio honen berri Eusko Jaurlaritzako enplegu eta gizarte politiken departamendu eta sailburuari, lehendakaritzari, ogasun eta finantza departamendu eta sailburuari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko gizarte politika departamendu eta diputatuari ematea.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzaren diru laguntza lerroaren indartzeko eskaera mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

ALKATEEN AUKERAKETA ZUZENERAKO PROPOSAMENAREN AURREAN MOZIOA

Herritarrengandik gertuena dauden instituzioak izanik, Udalen jarduera ireki, zabal eta demokratikoa sakontzea, eguneroko ariketa izan beharko litzateke. Hauteskundeen aurretik, egunean bertan eta ondoren ere, Udalek herritarren borondatearen ispilu izan behar dute. Aldi berean, gainerako interes partidista, ekonomiko eta finantzieroren gainera, herritarrenganako zerbitzua eta konpromisoa izango dira etengabe, Udal politika ezaugarrituko duten adierazleak.

Baina gure Udalek aurrekinik gabeko erasoak jaso izan dituzte azken urteetan. Europatik proposatu eta Madriletik inposatu dituzten murrizketen gauzapearen bidez, ahalmen politikoak eta ekonomikoak erabat mugatu zaizkie Udalei, lehendik larria zen egoera, oraindik ere larriago bilakatuz. Madriletik inposatu nahi izan zaizkigun neurri horiek guztiek, udalen autonomia suntsitzeaz gain, Udalen eskuetan dauden baliabideak esku pribatuetara bideratzeko ate guztiak irekitzen saiatu dira. Ereku publikoa eta herritarra ahulduz eta era berean eremu pribatua mugitzen diren enpresak indartuz. Azken urteetako udalen jarduera eredu, berez ahula izanik ere, erroto okerrera aldatu nahi izan da Madrilgo Gobernutik.



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Behin eta berriz, Hego Euskal Herriko instituzio guztiek, udalen autonomia indartzearen beharra eta udalak herritarrengana gerturatzeko neurriak aldarrikatu arren, Madriletik entzungor egin zaigu eta inposaketarekin erantzun zaigu.

Azken urte hauetan neurri hauek bultzatu eta udalen eskumen politikoak murriztu dituen PP alderdia, alkatearen aukeraketa zuzenerako proposamen batekin datorkigu. Oraindik osotasunean ezagutzen ez baldin bada ere, alkatea zuzenean zerrendarik bozkatueneko zerrendaburu izendatzeko proposamena jarri da mahaiaren gainean. Udal hauteskundeetarako hilabete gutxi falta diren honetan, nagusiki PP-ren alderdi interesei erantzuten dien proposamen baten aurrean gaude. PP-k ohikoa duen bezala eta beste behin ere, inoren iritzitari kasurik egin gabe (eta bereziki Euskal Herriko udal eta toki erakundeetatik egiten diren aldarrikapenei kasurik egin gabe) ari da urratsak ematen. Bere interes politiko alderdikoi eta zentralistak inposatu nahi ditu gure udaletan, herritarren gehiengoaren iritzia alde batera utzita. Alkatetza eta Udal Gobernuak, herritarren gehiengoaren borondatea ordezkatu behar dute. Alkatearen erreferentzia garrantzitsua da, baina ez eredu presidentzialista baten arduradun gisa, herritarren gehiengoaren ordezkari gisa baizik.

Hauteskunde Legearen aldaketa sakon bat behar dela uste dugu. Baina ez alderdi bataren edo bestearen interesak defendatzeko, baizik eta Euskal Herritarrok gure udal eta instituzio egitura nolakoa izan behar duen erabakitzeak aukera izateko. Gure udaletan demokraziari ateak irekitzeko, jarrera presidentzialista eta autoritarioak alde batetara uzteko eta herritarren hitzak udaletan zuzenean indarra izan dezan. PP-k aurkeztu duen proposamenaren kontrako norabidean egin behar dira aldaketak.

Hau guztia kontuan izanik, LIZARTZAKO Udalak puntu hauek onartzen ditu:

- 1.- Udal honek, Madrilgo Gobernutik PP-k alkatea zuzenean zerrendarik bozkatu-riko zerrendaburua izendatzeko burutu nahi duen Lege Aldaketaren aurkako jarrera adierazten du. Udal eta herritarren interesen gaitetik, PP-ren alderdi interesei erantzuten dielako. Norabide horretan, udal honek, interes alderdikoiek sustaturiko Hauteskunde Legearen edozein alde bakarreko aldaketa errefusatzeko du.
- 2.- Udal honek, Euskal Herriko udal eta toki entitateen borondatea errespetatu eta gure egitura instituzionala inposaketa eta murrizketarik gabe, Euskal Herritarren beharren arabera antolatzeko eskubidea aldarrikatu nahi du.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- 3.- Udal honek, bere jardueran herritarren parte-hartzea eta demokrazia zuzenerako tresnak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du, udalaren osaketan ez-ezik udaleko erabaki garrantzitsuenen aurrean ere.
- 4.- Udal honek, ebazpen honen berri, herritarrei eta Madrilgo Gobernuari emateko erabakia hartzen du.

Alkateen aukeraketa zuzenerako proposamenaren aurrean mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

KONSTITUZIO-AUZITEGIAK KATALUNIAKO KONTSULTA BEHIN-BEHINEKOZ BERTAN BEHERA UZTEKO HARTUTAKO ERABAKIAREN BURUZKO MOZIOA

2014ko irailaren 19an, Kataluniako Parlamentak irailaren 26ko Kataluniako 10/2014 Legea onartu zuen, aldeko 106 botorekin eta aurkako 28rekin. Berresteko ez diren herri-kontsultei eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege hori 2014ko irailaren 27an argitaratu zen Kataluniako Generalitatearen Aldizkari Ofizialean.

Halaber, egun bereko aldizkariaren eranskin gisa argitaratu ziren Kataluniako Generalitateko presidentearen, irailaren 26ko 129/2014 Dekretua, (Kataluniaren etorkizun politikoari buruzko kontsulta deitzekoa) eta horren eranskinak.

2014ko irailaren 29an, Mariano Rajoyren gobernuak erabaki zuen konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsua aurkeztea Konstituzio Auzitegian, eskatzeko legea eta dekretua behin-behinekoz bertan behera utz zitzaiten.

Irailaren 29an bertan, Konstituzio Auzitegiak erabaki zuen bi arau-testuak behin-behinekoz bertan behera uztea.

Horregatik guztiagatik, Lizartzako Udaleko Osoko Bilkurak, hau erabaki du:

- 1.- Lizartzako Udalak defendatzen du herriek eta pertsonak beren etorkizuna demokratikoki erabakitzeko askatasuna dutela, berriki Eskozian ikusi den moduan. Izan ere, Lizartzako Udalaren ustez, etorkizuna ezin da inposizioekin eraiki, oinarri demokratikoen eta herriek eta pertsonak adierazitako borondate askearen gainean eraiki behar da.
- 2.- Lizartzako Udala ez dago inola ere ados Espainiako Gobernuak aurkeztutako errekurtsorekin eta Konstituzio Auzitegiak hartutako erabakiaren, katalanek beren etorkizuna askatasunez erabakitzeko eskubidearen aurkakoak baitira.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- 3.- Lizartzako Udalak eskatzen dio Konstituzio Auzitegiari bi xedapen horiek behin-behinekoz bertan behera uzteko erabakian aztera egiteko eta aukera emateko katalanei 2014ko azaroaren 9an askatasunez adierazteko beren iritzia.
- 4.- Lizartzako Udalak erabaki hau Espainiako Gobernuari, Konstituzio Auzitegiari eta Kataluniako Generalitateari bidaliko dio.

Konstituzio-Auzitegiak Kataluniako kontsulta behin-behinekoz bertan behera uzteko hartutako erabakiari buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

KUTXABANK

Ia 150 urte inguru pasatu dira Donostiako (Bilbo, Gasteiz...) Udalak eta Gipuzkoako (Araba, Bizkaia...) Aldundiak Caja de Ahorros de San Sebastian eta Caja de Ahorros de Gipuzkoa sortu zituztenetik. Zalantzarik ez dago, eta historiari errepasso txiki bat ematea nahikoa litzateke, kutxa horiek sortu zirenean, hasieratik, funtzio publiko eta sozial bat betetzeko sortu zirela.

Funtsean, honokoa zen aipaturiko helburu eta funtzio publiko eta soziala: bertako herritarren aurrezkiak, bertan inbertituak izateko apustua bermatzea. Horretarako, herritarrei eta familiei finantza-zerbitzua eskaini, bertako enpresari txikiei finantziazioa bermatu, udalen finantziazio eta inbertsioetan lagundu, bertako ekonomiarentzat estrategikoak izan daitezkeen proiektuak bultzatu eta hori gutxi balitz, lortutako etekinak gizarte-ekintzan inbertitzea izan dute kutxek urteetan helburu.

Une honetan ordea, erraz esan dezakegu kutxen bategitetik sortu den Kutxabanken ildoak ez dela bertako herritarrei eta ekonomiari begirako funtzio publiko eta sozialabetetzen ari. Aitzitik, negozio hutsa eta bidegabea da besterik gabe bultzatzen ari dena. Hori gutxi balitz, kutxak banku-fundazio bihurtzeko hautuarekin, kontrol publiko eta soziala murriztuko da eta jada iragarri den pribatizazioaren bideari ateak ireki dakizkioke, aipaturiko funtzio publiko eta sozial hori behin betirako desagerraraziz.

Historikoki bete duten funtzioagatik, zein egungo egoera ekonomiko zailean bete beharko luketen funtzioagatik, garrantzitsua da oso bestelako norabidean doan bide berri bati ekitea eta hortxe kokatzen ditugu hain zuzen Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu duen proposamenaren helburuak. Horrexe diote hitzez hitz:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

1. "Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutzaren izaera publiko eta soziala bermatzea du lehen helburu.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiak, izaera publiko eta sozial horren bidez, entitate fundatzaileek hasieratik finkatutako helburuak berreskuratu nahi ditu XXI. mendeko Euskal Herrira egokitutako Kutxabank eta kutxen izaera eta helburuak bermatuz.
3. Bizi dugun krisi ekonomiko latz honetatik ateratzeko eta Gipuzkoa eta Euskal Herri Berria eraikitzeko finantza-tresna publiko eta soziala izatea.
4. Bertako ekonomia errealaren mesedetan arituko den finantza-entitatea izatea eta herri zein eskualdeetako errealitate sozialarekin eta ekonomikoekin lotuta egotea, izan daitezkeen behar ekonomiko eta sozialen aldeko inbertsioak eginez:
 - ⤴ Bertako autonomoei, merkatariei, enpresari txikiei eta kooperatibistei finantziarioa bermatzea.
 - ⤴ Udalei aurreikusi ditzaketen inbertsioei begira, finantza-baliabideak eskaintzea.
 - ⤴ Kutxen sorreran egon zen langileekiko eta familiekiko begirunea berreskuratzea eta etxe-kaleratzeak edota IRPH bezalako jarduerekin amaitzea eta familiek dituzten finantza beharretarako eskaintza eraginkor eta justua eskaintzea.
 - ⤴ Oro har, herriz herri hedatua egongo den finantza entitatea izatea. Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko etengabeko konpromisoa izango duena, bai langile kopuru eta bitartekoen ikuspuntutik zein zerbitzuaren kalitate edota euskararen erabilpenarengatik ere.
 - ⤴ Sorreratik hain garrantzitsua izan den gizarte-ekintzarekiko konpromisoak berrestea eta betetzea eta gizarte-ekintzak XXI. mendean bete behar duen papera denon artean berraztertzea eta garatzea."

Kutxa banku-fundazio batean ez bihurtzeko (Bizkaia eta Araban, banku-fundazio izateari uzteko) eta aipatu helburu horien norabidean arituko diren kutzak eta Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat bermatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak akzioen eskualdatze-prozesu bat proposatu du, hain zuzen ere, izaera publiko eta soziala ahalbideratzen duen aukera erreal, legal eta eraginkor gisa.

Hori guztia kontutan hartuta LIZARTZako Udalak honoko erabakiak hartzen ditu:

- 1.- LIZARTZako Udalak herritarren, familien eta bertako ekonomiaren mesedetan arituko den Kutxabanken finantza-ildo eraberritu bat aldarrikatu nahi du.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

- 2.- LIZARTZako Udalak Kutxaren (GIPUZKOAN) eta Kutxabanken izaera publiko eta soziala bermatzeko beharrezkoak diren neurri eta erabakiak hartzeko borondate eta prestutasun irmoa du.
- 3.- Norabide horretan, LIZARTZako Udalak Kutxako (GIPUZKOAN) batzarrari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiak proposatu duen eskualdatze-prozesu hori martxan jar dezala, Gipuzkoako Kutxa banku-fundazioa bihurtu ez dadin eta herritarren eta bertako instituzioen izaera publiko eta soziala bermatzen jarraitu ahal izateko.

Kutxari buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

LIBURU MAILEGUARENGATIK LIBURUTEGI PUBLIKOEN ORDAINDU BEHARREKO KANONA BERTAN BEHERA UZTEA ESKATZEKO PROPOSAMENA

Uda honetan PPK kultura- eta hezkuntza-munduari eraso dio beste behin, eta beraz beste urrats bat aurrera egin du zerbitzu publikoen aurka abian jarri duen gurutzadan.

Joan den abuztuaren 1ean BOEn 624/2014 Errege Dekretua argitaratu zen, *uztailaren 18koa, establezimendu publiko jakin batzuetan beren lanak maileguz uzteagatik egileei ordaintzeko eskubidea garatzen duena*. Gobernuaren aldebakarreko Dekretu horrek ezin gehiago gutxietsi eta baztertu ditu liburutegietako profesionalen iritzia eta irizpidea, eta ospe handiko zenbait idazle ere haren aurka egiten hasi dira.

Onartutako dekretuaren arabera, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera, 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, liburutegi publikoek kanon bat ordaindu beharko diete egile- edo editore-elkarteei zentro bakoitzean maileguz utzitako liburu bakoitzeko edo erregistratutako erabiltzaile bakoitzeko. Liburutegiek ordaindu beharko dute, beraz, legeen arabera eskaini behar dituzten zerbitzuak eskaintzeagatik, eta horrela liburutegiaren funtsa kolokan jarriko da, baita zerbitzu publiko horren biziraupena bera ere.

Egile-eskubideen elkarrekin beren gain hartuko dute kanonaren kudeaketa osoa, ordaintzeko betebeharra izapidetuz urtean behin kanona egileei helarazteko. Hau da, diru publikoarekin negozio pribatua sustatuko da.

PROPOSAMENA:



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

1. Uztailaren 18ko 624/2014 Errege Dekretuak ezarritako kanona atzera botatzeko eta bertan behera uzteko eskaera egitea, liburu-maileguaren eta liburutegiaren alorrean legeek ezartzen dituzten betebeharrak urratzen dituelako.
2. Tokiko, foru-aldundietako eta autonomia-erkidegoko liburutegi publikoetan kanon horren edozein ordainketa bertan behera uztea.

Liburu maileguarengatik liburutegi publikoek ordaindu beharreko kanona bertan behera uztea eskatzeko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

7.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 20:00etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Begoña Balerdi Urdampilleta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia